

VII.- TXORIERRIKO **EKINTZAILETZA IDEIEN BIDEO** **LEHIAKETA**

1. HELBURUA

Oinarri hauen helburua honakoa da: Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatean egingo den VII. Ideia Ekintzaile Bideoen Lehiaketa gauzatzeko arauak eta baldintzak zehaztea eta ezartzea. Lehiaketa honen bidez, hiru sari emango zaizkie, txartelen formatuan, puntuazio handiena lortzen duten hiru taldeei, teknologian gastatzeko.

2. XEDEA

Lehiaketa honen helburua Txorierriko gazteen artean kultura ekintzailea sustatzea eta gazteak ekintzailetzarekiko sentsibilizatzea da.

3. PARTAIDEAK

Lehiaketan parte hartu ahal izango dute Txorierrin bizi diren edo 2024-2025 ikasturtean Txorierrin ikasten ari diren 16 eta 29 urte bitarteko pertsonak.

4. INSKRIPZIOAK

Lehiaketan parte hartzeko eta izena emateko, formulario hau bete beharko da: <https://forms.gle/5Wy6PNLEHFtfKMBt5>. Taldekide bakoitzak formulario bat bete beharko du eta izena emateko epea 2024ko irailaren 17tik 2024ko azaroaren 15era bitartekoa izango da.

VII. CONCURSO DE VIDEOS **CON IDEAS EMPRENDEDORAS** **DEL TXORIERRI**

1. OBJETO

El objeto de las presentes bases es definir y establecer las reglas y condiciones bajo las cuáles se llevará a cabo el VII. Concurso de Vídeos con Ideas Emprendedoras que se celebrará en la Mancomunidad de Servicios del Txorierrri, por el cual se hará entrega de tres premios, en formato de vales, a los tres grupos que obtengan mayor puntuación, para gastar en tecnología.

2. FINALIDAD

La finalidad de este concurso es fomentar la cultura emprendedora entre la juventud del Txorierrri y sensibilizar a la juventud hacia el emprendizaje.

3. PARTICIPANTES

Podrán participar en el concurso aquellas personas de entre 16 y 29 años que residan en el Txorierrri o que se encuentren estudiando en el Txorierrri en el curso escolar 2024-2025.

4. INSCRIPCIONES

Las inscripciones para la participación en el concurso se harán cumplimentando el siguiente formulario: <https://forms.gle/5Wy6PNLEHFtfKMBt5>. Cada componente del grupo deberá cumplimentar un formulario y el plazo de inscripción será del 17 de Septiembre de 2024 al 15 de Noviembre de 2024.

5. BIDEOAREN EZAUGARRIAK

- Bideoak negozio edo enpresa-idea bat edo produktu berritzaile bat aurkeztu beharko du.
- Bideoa gutxienez bi laguneko taldean aurkeztu behar da.
- Produktu berritzailearen izena edo proiektuaren izena jarri beharko da.
- Euskaraz aurkez daiteke, gaztelaniazko azpigituluekin, gaztelaniaz euskarazko azpigituluekin edo ingelesez, gaztelaniazko edo euskarazko azpigituluekin.
- Gutxienez 2 minutuko iraupena izan behar du.
- Bideoa Youtuben argitaratu beharko da. Youtubeko bideoaren izenburua "Txorierriko Ekintzaitza Ideien Bideo Lehiaketa 2024 - produktu/zerbitzuaren izena" izango da.

6. BIDEOAREN AURKEZPENA

Bideoa Youtuben argitaratu ondoren, bideorako esteka formulario honetan erantsi beharko da:
<https://forms.gle/zNXZp2CmhHZKTjXT7>.

Bideoak aurkezteko epea 2024ko abenduaren 6an amaituko da, 23:59etan.

7. AHOLKULARITZA

Bideoak tutoretzapean egon ahal dira, hau da, Txorierriko Politeknikako ikasleak izateagatik aurkezten diren taldeek EIEko (Enpresa eta Ekimen Ekintzailea) irakasleen laguntza izango dute, eta gainerako parte-hartzaileek Ekintzaitzako Teknikariaren eta Egaz Txorierriko langileen laguntza izango dute.

5. CARACTERÍSTICAS DEL VÍDEO

- El vídeo deberá presentar una idea de negocio o empresarial, o bien un producto innovador.
- Será presentado por equipos de, al menos, dos personas.
- Deberá ir titulado con el nombre del producto innovador o bien con el nombre del proyecto.
- Puede presentarse en euskera con subtítulos en castellano, castellano con subtítulos en euskera o en inglés con subtítulos en castellano y/o euskera.
- Debe tener mínimo 2 minutos de duración.
- El vídeo se deberá publicar en Youtube. El vídeo de Youtube tendrá que titularse "Txorierriko Ekintzaitza Ideien Bideo Lehiaketa 2024 - nombre del producto/servicio".

6. PRESENTACIÓN DEL VÍDEO

Una vez publicado el vídeo en Youtube, se adjuntará el enlace al vídeo en el siguiente formulario:
<https://forms.gle/zNXZp2CmhHZKTjXT7>.

El plazo de presentación de los vídeos finaliza a las 23:59 del 6 de diciembre de 2024.

7. ASESORAMIENTO

Los vídeos podrán ser tutorizados, es decir, los grupos que se presenten por ser estudiantes de la Politeknika Txorierrri, contarán con el apoyo del profesorado de EIE (Empresa e Iniciativa Emprendedora), mientras que el resto de participantes, contará con el apoyo del personal Técnico de Emprendimiento y el personal de Egaz Txorierrri.

8. BALORAZIO-BATZORDEA

Lehiaketaren ebazpenerako, Ebaluazio Batzordea eratuko da, eta honako kideok osatuko dute:

- Egaz Txorierriko ordezkariak (2)
- Politeknika Txorierriko ordezkariak (3-4)

Balorazioan berdinketa gertatzen bada, Txorierriko Zerbitzu Mankomunitateko ordezkari batek ebaziko du berdinketa.

9. BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Bideoak alderdi hauetako bakoitzean baloratuko dira, 0 eta 5 puntu bitarteko puntuazioarekin.

- Originaltasuna
- Sormena
- Komunikazio ona (hizkuntza egokia, inklusiboa...)
- Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna.
- GJH (Garapen Jasangarriaren Helburuak)
- Irudiaren eta soinuaren kalitatea.

10. LEHIAKETA EBAZTEA ETA SARI-BANAKETA

Lehiaketaren ebazpena 2024ko abenduaren 20an emango da ezagutzera, Gazteria Txorierriren webgunearen bidez (gazteria.eus) eta Facebook, Instagram eta Linked-in gure sare sozialen bidez.

8. COMISIÓN DE VALORACIÓN

Para la Resolución del Concurso se creará una Comisión Evaluadora que estará compuesta por los siguientes miembros:

- Representantes de Egaz Txorierriko (2)
- Representantes de la Politeknika Txorierriko (3-4)

En caso de que en la valoración se produjera un empate, será una persona representante de la Mancomunidad de Servicios del Txorierriko, quién desempate.

9. CRITERIOS DE VALORACIÓN

Los vídeos serán valorados en cada uno de los siguientes aspectos con una puntuación que irá de 0 a 5 puntos.

- Originalidad
- Creatividad
- Buena comunicación (lenguaje adecuado, inclusivo...)
- Igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.
- ODS (Objetivos de Desarrollo Sostenible)
- Calidad de imagen y sonido.

10. RESOLUCIÓN DEL CONCURSO Y ENTREGA DE PREMIOS

La resolución del concurso se dará a conocer públicamente el 20 de diciembre de 2024, a través de la página web de Gazteria Txorierriko (gazteria.eus), y también a través de nuestras redes sociales de Facebook, Instagram y Linked-in.

Horietan, puntuaziorik handiena lortu duten 3 bideoen izenak argitaratuko dira, eta, beraz, lehiaketako irabazleak izango dira. Baina ez da esango zein postutan geratu diren. Hiru bideo irabazleen postua sari-banaketaren egunean jakinaraziko da.

Sari banaketa 2025eko urtarrilean edo otsailean egingo da, Derioko Kultur Birikan. Lehiaketaren ebazpena argitaratzen den unean, sari banaketaren eguna eta ordua zehaztuko dira.

Sariak produktu elektronikoetan gastatzeko txekak izango dira, eta honela banatuko dira:

- Lehenengo postua: 500 euroko txekea.
- Bigarren postua: 350 euroko txekea.
- Hirugarren postua: 150 euroko txekea.

Lehiaketan parte hartu duten pertsona guztiek partaidetza-diploma jasoko dute.

Derion, 2024ko irailaren 17an

En ellas se publicarán los nombres de los 3 vídeos que han obtenido mayor puntuación y por lo tanto, resultan ser los ganadores del concurso. Pero no se dirá el orden del puesto en el que han quedado. El puesto en el que han quedado los tres vídeos ganadores, se comunicará el día de la entrega de premios.

La entrega de premios se llevará a cabo en el mes de Enero o Febrero de 2025, en el Kultur Birika de Derio. Se especificará el día y la hora en el momento en el que se publique la resolución del concurso, el 20 de diciembre de 2024.

Los premios consistirán en unos vales para gastar en productos electrónicos, y se repartirán de la siguiente manera:

- Primer puesto: Vale de 500 euros.
- Segundo puesto: Vale de 350 euros.
- Tercer puesto: Vale de 150 euros.

Todas las personas participantes del concurso obtendrán un diploma de participación.

Derio, a 17 de septiembre de 2024